

# ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA HIRI JASANGARRIAN



AMAIERAKO UDAL ESKOLA  
FOROAN AURKEZTEKO IDATZIA

PROIEKTUAREN 2.IKASTURTEA



Udalako Ingurumen Eskola  
2024ko ekaina

Arratsaldeon!

Gaur hemen elkartu garenok ikasleak gara Arrasateko Herri Eskolan, Institutuan eta Arizmendi ikastolan (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetan). Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 2030 proiektua lantzen.

Eskolako Agenda 2030aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

2015. urtean egin zen Garapen Jasangarriari buruzko Goi bileran, Nazio Batuen Erakundeko estatu kideek 2030erako Garapen Jasangarriko Agenda onartu zuten. Horrek Garapen Jasangarriko 17 helburu biltzen ditu, pobrezia deuseztatzeko, desberdintasunaren eta injustiziaren kontra borrokatzeko eta klima aldaketari aurre egiteko.

Gure eskoletan Eskolako Agenda 2030 lantzen ari gara eta ikasturte honetan jarraitu dugu iazko ikasturteko helburu berdintsuak lantzen:

Garapen iraunkorreko 11. helburua: hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. Eta 7. helburua: energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.

Iazko ikasturteko lanketaren ondoren, identifikatu genituen 3 arazo ekosozial gure herrian:


- Mugikortasuna: Arrasaten energia gehien erabiltzen duen sektorea motordun garraiobideak dira.
- Energia kontsumoa: Debagoiengan erabiltzen dugun energia gehiena, % 95, kanpotik dator.
- Argiteria publikoa: herriko argiteria publikoak energia kontsumo desegokia dauka.



2023ko maiatzeko osoko bilkuran aurkeztu genituen hainbat proposamen eta konpromiso arazo horiei aurre egiteko.

Horrekin batera, esku hartze plana ere diseinatu genuen ikasturte hasieran, eta kurtsoan zehar aritu gara plana martxan jartzen. Esku hartze planaren bidez, nahi izan dugu hainbat ekintza burutu, identifikatutako arazoei konponbideak bilatu ahal izateko.

2024ko maiatzeko eskola arteko foroan, plana ebaluatzeke elkartu gara ikastetxeetako ordezkariak, eta testua adostu dugu, gaur, hona, zuen aurrera ekartzeko.



Esku hartze planeko ekintzetako batzuk gure ikastetxeetan egin ditugu. Gure ikastetxearen diagnostikoa egin eta gero, egoera hobetzeko ekintzak eraman ditugu aurrera. Besteak beste:

- Ikastetxeko uraren kontsumoa murrizteko, bridak jarri ditugu iturrietan. Ikasleen artean kontzientzia pizteko, Urkulu urtegiaren argazkiak eta datuak jarri ditugu erakusketa gisa.
- Geletan, energia zaintzeko arduradunak izendatu ditugu (argi naturala badago argiak itzaltzeko, leihoak ixteko berogailua martxan denean eta abar.)
- Ikastetxe klik proiektuaren barruan hainbat neurri hartu dira ikastetxean energiaren kontsumoa murrizteko, adibidez:

- Ordenagailuak programatu dira erabiltzen ez direnean itzali daitezzen.
- Argindar kontagailua eta kalderaren funtzionamendua behatu dira.
- Komunetan sentsoreak jarri dira.
- Led argiak jarri dira fluoreszenteen ordean.
- Ikastetxeari energia ematen dioten sistema guztien argazkiak egin dira eta jarraipena egin zaie.
- Entxufe adimendunak jarri ditugu fotokopiagailuetan.
- Mamu kontsumoak saihestu ditugu erregletak erabilita.



Esan beharra dago, neurri horiekin energia eta dirua aurrezteko lortu dugula.

- Klimaren dekalogoia egin dugu, patruila berdea antolatu, maketa jasagarria eraiki, txoko berdea sortu,...
- Zuhaitzak landatu ditugu ikastetxe inguruan.
- Hondakinak gutxitzeko eta ingurua garbi edukitzeko ere egin ditugu hainbat ekintza:
  - Auzoa garbitu dugu.
  - Hamaiketakoa egitean zenbat plastiko erabiltzen dugun neurtu dugu, eta gutxiago erabiltzen saiatu gara.
  - Hormirudiak egin ditugu hondakin bakoitza nora botatu behar den azaltzeko.
  - Ikasle taldeak antolatu ditugu, ikastetxeko zaborra biltzeko.

- Toki gehiago jarri dugu bizikletentzat eta patineteentzat.
- Ortua martxan jarri dugu, hemengo produktuen kontsumoa sustatzeko.
- Aldaketak egin ditugu, ikastetxeko patioak jasangarriagoak izan daitezzen.



Esku hartze planeko beste ekintza batzuk gure herrian egin ditugu. Aurreko ikasturtean herriko diagnostikoa egin eta arazo ekosozialak detektatu ondoren, kurtso honetan ekintza batzuk eraman ditugu aurrera herriko egoera hobetzeko. Besteak beste:

- Eguzki energiaren nondik-norakoez informatu gara, eta jakin dugu herrian proiektu berriak aurrera eramaten ari direla: Ekiola ezagutu dugu eta Kulturolako teilatuan dauden eguzki plakak ere bisitatu ditugu.
- Hazien mintegia egin dugu eta hortik ateratako zuhaitz txikiak banatuko ditugu erakusketa ikustera datozen herritarren artean. Eskutitzak ere idatzi ditugu, zuhaitzen garrantziaz herritarrak sentsibilizatzeko.
- Mugikortasun ohitura jasangarriekin lotutako txartelak egin ditugu eta herritarren artean banatu.
- Mugitzeko ohiturei buruzko inkestak egin ditugu herritarren artean.

- Emaus Ekozenterra ezagutzera joan gara, eta ikasi dugu materialak berrerabiltzeak zerikusia duela energia kontsumoa aurreztearekin. Gure erakusketan Emauseko materialak ere ikusgai jarriko ditugu.
- Udalako Ingurumen Eskolara autobusez joan ordez, oinez joan gara, eta lortu dugu autobus gutxiago ibiltzea errepidean. Irailean ere, Mugikortasun astearen barruan, eskola bidea egin genuen, herriko hainbat ikaslek parte hartu zuten.
- Ortua osatu dugu bertan sortutako janariak edukitzeko. Ikusi dugu Arrasateko dendetan hainbat janari dagoela oso urrutitik ekarritakoa. Horiek energia asko kontsumitzen dute hainbeste kilometroko bidaia egiteko eta, gainera, kutsatu egiten dute eta klima aldaketan eragin.



- Kulturaren erakusketa antolatu dugu, energia kontsumoarekin loturiko gaietan herritarrak sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko. Hori prestatzeko, hainbat maketa eraiki dugu ikastetxean, eta Udalako Ingurumen Eskolan ere sortu ditugu hainbat material, erakusketa osatze aldera: letrak, tximisten aholkuak, berosaurus erraldoia, eskutitzak, hausnarketa txokoa, tximisten zuhaitza,....
- Jakin dugu Arrasaten bertako produktuak non erosi ahal diren, eta aztertu ditugu hainbat janari eta horiek egiten dituzten kilometroak.
- Paper birziklatua egin dugu, eta hor mezu batzuk idatzi ditugu herritarren artean banatzeko.


Bukatzeko, aipatzekoak dira gure proposamenen aurrean udalak egin dituen hainbat ekintza, eta esan beharra dago nolabait Ekintza Plana osatzen lagundu dutela:

- 2024. urtean Mugikortasun Plana berrikusten ari da: partaidetza prozesuak martxan jarri dira (udal teknikariena eta herritarrena), eta bukaeran neurriak hartuko dira herriko mugikortasuna hobetzeko (bidegorrien egoera hobetu, Mugikortasun astea indartu,...)
- Udalak hainbat kanpaina antolatu ditu aurten: Zuhaitz eguna, Hondakinen kanpaina,...
- Udalako Ingurumen Eskolan led argiak jarri dira, orain arteko fluoreszenteen ordeztuz.
- Arrasateko Plan Orokorrak aurreikusten du Otalora Lizentziaduna kalean erreka bistaratzea eta errepidea lurperatzea.
- Ikastetxe Klik proiektua bultzatzen laguntzen du.
- Iaz herrian 200 zuhaitz baino gehiago landatu ziren, eta basotxoak eta baso jangarriak, hau da, jateko fruituak dituzten landarez osatutakoak, egin dira. Aurten 730 zuhaitz eta zuhaixka landatu dira urtarril eta otsail artean, aldaketa klimatikoaren arazo globalari tokian tokitik aurre egiteko.



Proiektuak iraun duen bi ikasturte hauetan denon artean lortu dugu Garapen Iraunkorraren bi helburu horiek lantzea, energia eta komunitate jasangarria, indarrak batuta eta gure herria leku atsegino, jasangarriago eta solidarioago bihurtuko duten jarduerak martxan jarrita.

Gaur hasita eta ekainaren 16ra arte, Kulturaten ikusgai izango duzue erakusketa bat, hemen azaldutako guztia ikusteko. Bihar, ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko eguna dela aprobetxatuz, erakusketaren inaugurazioa eta bisita gidatua egingo dugu arratsaldean, 18:30ean; hemendik gonbidatzen zaituztegu hara joateko.



Argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegin bat gura dugula, eta horretan prest gaude laguntzeko. Arrasate herri atsegina da jadanik, baina konturatu gara denon artean gauza asko hobetu dezakegula.

Hurrengo urteetan ere gure lanean jarraituko dugu. Espero dugu gure ekarpenak lagungarriak izatea.

Eta amaitzeko, orain gaiarekin lotuta eta guk sortutakoak, bertso batzuk botako ditugu, ea zuen gustukoak diren:

*Energia nahi dugu  
berriztagarria  
denok batera zaindu  
nahi dugu herria  
natur gune, farola  
ta bidegorria  
Arrasate atsegin  
ta jasangarria.*

*Bidegorriak gehitu  
autoak gutxitu  
berdeguneak zaindu  
zuhaitzak landatu  
ura argia alferrik  
sekula ez gastatu  
nahi genuke herria  
zaindu ta hobetu.*

*Led argiak ta plakak  
albora ez utzi  
berogailuak piztu  
ta leihoak itxi  
energia fosila  
erabili gutxi  
mundu garbi bat  
nahi dugu ikusi.*